

puntutik, ez da epigrafe propio batean agertzen. Ene ustez, horrela izanik, eta zer esanik ez alor ezberdinetan agertuz gero, atal horrek bakarrik justifikatuko luke liburua-
ren argitalpena.

Laburbilduz, beraz, euskal dantzaren historiako liburu ezinbesteko baten aurrean gaude, bere 570 orrialdeetan Joxemiel Bidadorrek kalitatezko datu kopuru ikaragarria ematen baitigu. Liburua borobiltzeko, hala ere, beste gauza batzuk eska dakizkioke: interpretazio sakonagoak, egungo sortu diren eztabaidetan parte hartzea, bibliografia modu sistematiko batean agertzea, eta, zergatik ez, gure herrian tamalez hain arrunta den nazioarteko korrontetik kanpo ez gelditzeak beteko lukete egilearen ahalegin ika-
ragarri hau.

Karlos Sanchez Ekiza



ELLIOTT, John H.

Empires of the Atlantic World. Britain and Spain in America, 1492-1830

New Haven/London : Yale University Press, 2006. - xxi + 546 or. : ir. ; 25 cm. - ISBN (10): 0-300-11431-1. ISBN (13): 978-0-300-11431-7

Imperios del mundo atlántico. España y Gran Bretaña en América, 1492-1830

Madrid : Taurus, 2006. - 864 or. : ir. ; 24 cm. - ISBN (13): 978-84-306-0617-7. ISBN (10): 84-306-0617-3

John H. Elliott-ek ez du aurkezpenik behar, aspalditik baitabil Aro Berriko historialari famatuaren artean. Penintsula Iberiarrean hispanista bezala ezagutzen badugu ere, eta bere ikerketak inperio garaiko Espainian oinarritu baditu ere, Europako historian ongi jantzitako gizona dugu dudarik gabe. Hona ekartzen dugun liburu berri hau Espainiak eta Britainia Handiak Amerikan sortu zituzten inperioen historia alderatua egiteko saiakera da. Hau ez da dokumentu-ikerketaren sintesi liburu baizik, gaurdaino gaiari buruz argitaratutakoaren sintesia alegia. Idazleak bi inperioak alderatzen ditu sortu zirenetik hautsi ziren arte, hau da, bertara iritsi eta lekutu zirenetik bertako biztanleek burujabetasuna lortu zuten arte.

Bi inperioen bilakaerak ezberdintasun handiak izan zituzten baina baita antzekotasun handiak ere, nahiz eta gure ustez konparaketa hein batean artifiziala izan. Aldez aurretik, biak eremu geografiko konkretu bateko baliabideak eta zibilizazioak menperatu zituzten bi inperio-eredu dira, baina baldintzak eta bilakaerak oso bestelakoak izan ziren. Horrelako historia alderatu bat egiteak ariketa espekulatibo bihurtzeko arriskua du. Liburua irakurrita askotan sortzen zaigun galdera hau da: zer azaldu nahi du idazleak? Nahiz eta autoreak konparaketa bat osatu nahi duela hasiera hasieratik iragarri, konparaketa baino bi ereduaren analisia ematen du gehien bat. Bartzuetan autoreak pisu gehiegi ematen dio narrazioari; hau da, sintesiak eta analisiak

konparazioa menperatzen dute. Alderaketa izanez gero, gauza asko daude soberan, alderaketa hori zuzenean egin beharrean, autorearen analisi luze eta sakonean sartzen baita.

Sintesi bezala obra paregabea da, dudarik gabe, eta analisi horretatik, irakurleak zubiak sortu ditzake alderaketa egitearren. Baina autorearen deskribapen luzean gaitzen da, eta ez du guztizko alderaketa lortzen, benetako hausnarketa sakona falta baita. Askotan argudioak eta diskurtsoak ariketa kabalistiko hutsak ematen dute, suposizio eta ahaleraz beteak; baina benetan zer egiaztatu nahi du idazleak? Dena den, bi inperioen bilakaerari buruzko eskuliburu bihurtu daiteke, bertan azaltzen baitira gaurdaino ditugun ezagupen gehienak. Nolanahi ere, nahiz eta klimatologjaren papeara, eta natura eta ingurumenaren baldintzak aztertu, faltan botatzen dira ere *Environmental History* edo Ingurumenaren Historia edo Historia Ekologikoaren ekarpenak¹: inperioek Amerikako naturaren eragindako inpaktuak (Europako fauna –eta landare–kolonizazioa) eta aldaketak, eta aldaketa horiek nola baldintzatu zuten hango biztanlearen eta egitura politikoen bilakaera.

Liburu bat osatu beharrean, behar bada autoreak bi liburu idatz zitzakeen. Baina, aipatu inperioen arteko konparaketa benetan egin daiteke? Hori egitea ez al da ariketa erretoriko hutsa? Oraino ez ote da garbi geratu bien bilakaera ezberdina izan zela eta ezberdintasun horrek arrazoi anitzak zituela, faktore geografiko, politiko, ekonomiko, baina baita kultur, erlijio eta ideologiko zirela medio? Baldintzak ezberdinak izanda, nola izango ote ziren bi inperio bada berdinak? Horiek alderatzea zentzugabekoa gerta daiteke. Horrelako konparaketak nora eramaten gaitu? Badakit anglosaxoi munduan alderaketak oso ohikoak direla, eta ez naiz hasiko horren aurka, ni neu ere baliagarriak eta eragingarriak izan daitezkeela uste dut eta. Darabilgun kasu honetan zer nolako ekarpenak lortu ditzakegu? Alderaketa baliagarria izan daiteke baten errealtateak besteari argitzen eta hobeto ulertzen laguntzen badigu, baina ez bata eta bestea nolakoak diren argitzeko. Kasu honetan oso interesgarria da autoreak bi inperioen arteko harremanen (elkartrukeen eta tirabiren) egiten duen analisia; hartu-eman hauen eta bidai literaturaren bidez ingelesek Espainiako Inperioa eredutzat hartu eta, hein batean, honen arrakastak kopiatzen eta hanka-sartzeak baztertzeko saiatu ziren.

Arestian esandako horiek guztiek ez dute esan nahi liburuak merezi ez duenik, baina irakurtzen hasi baino lehen jakin behar dugu zertarako den eta zertarako ez. Egia da Amerikan sortutako inperio espainiarrak eta britainiarrak parekotasun handiak dituztela: bai biak inperioak dira, baina inperio guztiek akaso ez al dute parekotasun eta ezberdintasun handiak. Zer gertatu zen orduko beste inperioekin, bi hauekin parekotasunak edo ezberdintasun handiak ote zituzten? Zer gertatu zen Kanadarekin edo Australiarekin XVIII. mendean? Nolakoak izan zen inperio Errusiarra? Ni ez naiz Amerikako historian aditua edo espezialista, baina liburuaren irakurketak uste baino ekarpen gutxiago eman dizkit. Irakaslea naizen heinean gerturatu ohi naiz bi inperioen errealtateri eta bertan irakurritakoak ez dira berriak izan niretzat. Behar bada, niri urrunago geratzen zitzaidan Britainia Handiko inperioa izan da harridura gehien sortu didana, baina kasu horretan ere hutsune batzuk nabarmendu zaizkit. Nire ustez sintesiak beharrezkoak dira, baina zer edo zer ekarri behar dute, hau da ezagupenetik hasita hausnarketa sakon bat egin eta orduko eta gaur egungo errealtateak ulertaraziko diguten ekarpen erabakigarriak egin eta ez bilketa huts bat. Egia da liburuaren bukaeran Elliott-ek gizabanakoa eta halabeharra aldarrikatzen dituela, egituren gainetik;

1. CROSBY, A.W. *Ecological Imperialism. The Biological Expansion of Europe, 900-1900*. New York: Cambridge University Press, 1986. - KRECH III, S.; McNEILL, J.R.; MERCHANT, C. (Eds.). *Encyclopaedia of World Environmental History*. 3. ale. New York & London: Routledge, 2004.

aldarrikatu bai, baina erabili gutxi. Gibel solasean aukeraketa pertsonalari eta ustekabeko gertakarien aurrekusi gabeko ondorioei garrantzi handia ematen badie ere, bi inperioen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ateratzen saiatzen denean determinismoan erortzen da liburu osoan zehar. Halere eskertzekoa da erabiltzen duen ikuspegi anitza, etnografia, politika, ingurumenaren eragina edota literatura erabiliz.

Nolanahi ere liburuak baditu ekarpen interesgarri asko. Hitzaurrean aipatzen duen bezala protestantismoak ez du beti modernitatea esan nahi. 1580 urterako ingelesak konturatu ziren inperio bat izateak asentamendu eta kolonizazio konpromiso eskatzen zuela. Ordu arte, ez zioten Amerikako lurraldeei ia garrantzirik eman, behar bada horregatik, Amerikan bertaratu ziren lehenengoei “*planters*” deitzen zitzairen, eta ez “kolonoak” edo “konkistatzaileak” espainiarrei bezala. Biak aurre egin behar izan zioten okupazio eta jabetza eskubideei buruzko eztabaidari. Batzuek Aita Sainduaren laguntzarekin egin zuten eta Erregearen elizaren gaineko nagusigoarekin besteek. Biek aldarrikatu zuten herri basatien kristautzeko eta zibilizatzeko probidentzia-misioa, herri hauekin salerostea ahalbidetzen zuen “*ius gentium*”-ean eta nazioarteko zuzenbideko “Nazioetako legean” oinarritua. Espainolek integrazioa aukeratu zuten bitartean, britainiarrek bereizketa beren ohiturak okerrera egingo ote zuten beldur. Lurraren esplotazio maila ere ezberdina izan zen. Amerika espainiarrean arpilatzeak garapen ekonomikoari utzi zion lekua, bertako altxorrak lortzea zailago egiten zen eta metropolira bueltatuko ez zirela jabetu ziren heinean. Ingelesen artean arpilatzea apalagoa izan zen, bertako motore ekonomikoa tabakoa eta azukrea izan baitziren. Lehen kasuan metal bitxiak baldintzatu zuten bertako ekonomia eta txanponen erabilera ohikoagoa eta horrexegatik ekimen publikoa garrantzizkoagoa izan zen, bigarrenean berriz txanpon espainiarra erabiliko da denborarekin, kontrabandoari eta Kari-beko uharteei esker, ekimen pribatua gailendu zela.

Elliott-ek egitura diakronikoa ematen dio bere liburuari, europarrak Amerikara ailegatu zirenetik bertakoek burujabetza lortu zuten arte, hiru atal nagusietan antolatuta: okupazioa, sendotzea eta burujabetzea. Atal bakoitzean bi inperioen ezaugarriak aztertzen joaten da.

Okupazioari dagokionez, Elliott-en aburutan, bi inperioen izaera-ezberdintasunak bertan zeuden populazioen ezberdintasunean dautza. Bi okupazio ezberdin eman ziren Iparramerikan eta Hegoamerikan, bertan populaketa baldintzak baitziren: Iparramerikak populaketa eta dentsitate gutxi zuen eta Erdialdeko Amerikak eta Hegoamerikak populaketa eta dentsitate handiak. Ingalaterra eta Gaztela Erdi Arotik ari ziren beren inperioak sortzen. Ingalaterra irlandarren, eskoziarren edota galestarren kontura, Espainia, berriz, birkonkistari eta mairuei esker. Espainian, Britainiar Uharteetan bezala, konkista eta asentamendu prozesuak munduko leku urrunetara eramango ziren jokabide eta buru-ereduak sortu zituen. Espainiarrek eta ingelesen hobetzearen diskurtsoa erabili zuten Ameriketara zuten presentzia arrazoitzeko. Dena den, inperio espainiarra Amerikan ez zen izan metropoliko gizarteak transmititutako guda- eta jaun-baloreen islatutako inperio konkistatzaile hutsa. Nolanahi ere, ingelesen erlijio-aniztasunaren aurrean, espainiarrek judutarren, mairuen eta herexen migrazioa eragotzi zuten.

Ingelesek filosofia ekonomiko koherenteagoa azaldu zuten, behar bada urre gabeziari esker. Ingelesen ustez, jatorrizko lurraldeetako gizarte- eta ekonomia-arazoei aurre egiteko konponbide bihurtu zen kolonizazioa, espainiarrek kontrakoa uste zuten momentuan; bertan konkistaren eta kolonizazioaren onurak zalantzan jartzen ari baitziren. Ingalaterrako merkatariak gaztelarrek zuten eragiketa maila handiago zuen gizarte- eta ekonomia-sistema batetaz bailatzen ziren. Hauentzat zailago zen bere interesak babestea, Koroaren finantza-eskakizun bidegabearen aurrean. Ingelesen

kasuan, metal bitxien eta eskulana ezak garapenean oinarritutako sistema sortzea behartu zituen, esplotazio hutsaren orde, eta honek etekinak lortu ezin zuen Estatuaren papera ahuldu zuen; Koroaren eta Eliza anglikanoaren ebanjelizazioaren aldeko interes txikiagoak talde gutxiengo eta libertarioen finkapena baliatu zuen.

Naturak eta ingurumenak ere izan zuten bere eragina gertatutako ezberdintasunetan. Hasieratik erronka berdinei egin zieten aurre: lurra bereganatu, bertakoekin nolabaiteko harremana lortu, erdi berria zen instituzio-eremu batean beren komunitateak garatu eta bermatu, eta beren eta metropolien beharren arteko oreka bilatu. Amerikako menperatzeak hiru lotura-prozesu ekarri zituen: lurraren jabe egite sinbolikoa (ekintza sinbolikoak, izen-aldaketa edo kartografia), lurraren okupazio materiala (hiri fundazioa, populazioaren pilatze edo sakabanaketa) eta jendeztatze edo birpopulazioa (emigrazioa eskaintza eta eskariaren arabera). Bertako biztanleriaren inperatzeak bide asko hartu zituen: gudak, gaixotasunak, ebanjelizazioa eta kristautzea. Kasu honetan, espainiarrek, baliabide gehiago zituztela, programa sistematikoa burutu zuten. Ingelesen kasuan, ordea, izandako erreforma anglikanoak orden erlijiosoak ezabatu, Elizaren egitura ahuldu eta konfesioen arteko leia areagotu zuen, ez eragin-kor bihurtuz.

Espainiar eta ingeles Amerikan oinarrizko gaiak ekoizteko garatutako lan-sistema kolonizatzaileak modu errentagarrian lanean jarri zezaketen eskulan indioak baldintzatzen zuen. Amerika espainiarrean zein ingelesean, hasteko eskulan indioa erabili zen eta gero eskulan beltza. Dena dela, Iparramerikako ingelesek ezin izan zuten eskulan indioari nahi adina etekin atera eta morroi kontratuak sinatu zituzten Ingalaterratik etorritako eskulanarekin. Hala ere, Amerika espainiarrean errazago zen askatasuna lortzea. Amerikarekiko merkataritzaren babesa eta antolaketa maila handiagoa izan zen Espainian Ingalaterran baino, honek beharrezko aparatu eta baliabideak ez baitzituen. Estatu britainiarra motela izan zen Amerikako baliabideak nola ustiatu antolatzeke eta Ozeano Atlantikoaz haraindiko merkataritza gainean bere menpe arautzaile ezartzeko garaian.

Okupazioaren ondoren, XVI. eta XVII. mendeen zehar, inperioen sendotzea etorri zen. Ingelesek urrats motelak eta duda-mudan eman zituzten inperio baten ezarretan, espainiarrek, berriz, azkar sartu zituzten lurralde berriak bere inperio-sisteman. Espainiaren kasuan ez bezala, autoreak ez ditu ia daturik ematen ingelesek Amerikan ezarri zuten administrazio-sistemari buruz.

Gaztelan ez bezala, Britainiar Amerikan ordezkapen gobernu-egiturak ezarri ziren kolonietako fundazioaren lehen garaietan. Egia esan, espainiar eta ingeles Amerikan metropolietako gizarte-eredua errepikatu zen, baina zenbait aldaketekin eta gabezi askorekin. Ez zen gizarte hain zorrotza izan, baina ezberdintasunen mugak lausotua-goak zirenez, harrigarria da zer nolako grina zegoen gizarte-mailaketa mantentzen lagunduko zuten maila-ikurrak aurkitzeko: esaterako goi-maila zaldiak ematen zuen. Ezberdintasuna nonahi aurki dezakegu Amerikako gizarteetan eta, horrenbestez, erresumina. XVI. eta XVII. mendeetan familia jabeekin lotua zegoen bigarren go aristokratik osaturiko elite berria sortu zen, eta hauen aurrean morroiak izandako nekazari askeen multzoa kokatu zen. Beranduago, XVIII. mendean, tira birak beltzen eta zurien artean sortuko ziren. Hispanoamerikar gizartea kastaz osaturik zegoen: mestizo, mulato eta zanboak. Amerika hispaniarreko "pigmentukrazian" "zuritasuna" gizarte-mailaketaren adierazgarri bihurtu zen, hau da, metropolian bezala odol-garbitasunak ekarriko ditu ezberdintasunak, lehenengoan mairuak, judutarrak eta abarrekoak baztertuz, eta oraingo honetan beltzaranak baztertuz. Amerika espainiarrean kolonoak berdintasunera bultzatuak izan ziren, Amerika ingelesaren dibertsitatearen aurrean; kasu honetan garrantzi handia zuten jatorria, sinesmen erlijiosoa edota bertako bal-

dintzak. Bietan, bai espainiarrean bai ingelesean merkatarri maila sortu zen, eta horrek etsaigoa areagotu zuen. Amerika espainiarrean jende xeheak errege-ministroen aurka egin zezakeen bakarrik *“viva el rey y muera el mal gobierno”* oihukatuz, ingeles-askatasunak, aldiz, kontzeptu bortitza eta malgua zen, jarduera politiko eta judizialari tarte bat usteko.

Probidentzia-ikuspegia hala protestante nola katolikoaren artean ematen zen, eta azken auzian eta salbazioan bere lekua ematen zion Amerikari. Baina ingelesean kasuan, baztertzaila zen eta gaztelarrean, ordea, integratzailea. Eliz katolikoak aberastasun handiak bildu zituen, eta horri esker Amerikako gizartearen menpea lortu zuen eta baita alderdi politikoetan nahastea ere. Hemen ere bertakoen (kreolen) eta metropolitik etorritakoen (gallupinen) arteko gatazkan sortu ziren boterea eta aberastasunak zirela medio. Protestantismoaren zatiketa-tendentzia areagotu egin zen Amerikan, bertako finkatze eta kolonizazio-prozesuak izaera hori bera izateagatik. Aniztasun horrek berak eta Elizaren eta Estatuaren arteko banaketak azaltzen dute eliza-egituraren ahulezia eta bere eragin txikia bizitza politikoan eta sozialean. Ingalaterrako kasuan ez zen ortodoxia ezarri, bertan ez baitzegoen eliza-hierarkiarik, eliza-azuzitegirik, ez eta eliza-zerga sistemarik ere. Horregatik, hain zuzen ere, aniztasun erlijiosoak aniztasun politikoak areagotu zuen, eta horrek Amerika britainiarreko gizarte astintze iraunkorrean eta, aldi berean, berritze iraunkorrean murgildutako gizarte atomizatua bilakatu zuen.

XVII. mendeko bukaerarako mundu atlantiko integratu bati buruz hitz egin dezakegu; mundu bat non Europako Estatuaren arteko aurkakotasunek Amerikako gizarteetan gero eta gehiago eragiten zuten, eta non harreman berriak sortzen ziren, Ozeano Atlantiko haraindikoak zein hemisferioen artekoak, gudaren eta komertzioaren eskakizunak bultzatuta. Britainiar inperioak itsas eta merkataritza inperioa bihurtu zen, lurren konkistan oinarritutako Espainiako inperioaren antitesia bezala. Ingeles inperioa merkataritza-ekimenean, protestantismoan eta askatasunean oinarritu zen. Metropoliarekiko kolonien menekotasuna gero eta txikiagoa izan zen, bertako industriak eta eskualdeen arteko merkataritza garatzen joan ziren heinean. 1700 aldera merkataritza- eta politika-loturak lausotzen joan ziren Espainia eta bere kolonien artean, Ingalaterraren kasuan indartzen ari zirenen artean. Kreol espainiarrak zein ingelesak gutxiagotasuna eta beren eskubideen ezeztatzea pairatu zuten.

XVII. eta XVIII. mendeetan burujabetasun-prozesua hasi eta burutu egin zen, ingeles Amerikan espainiar Amerikan baino lehen. XVIII. mendea hedakuntza garaia da Amerikan, nahiz eta hedakuntza demografikoa Amerika britainiarrean nabarmenagoa izan, batez ere metropolitik etorritako etorkinei eta esklaboei esker, eta hiri-biztanleriaren jaitsiera erlatiboa egon. Honek lur-hedakuntza ekarri zuen, batik bat Amerika britainiarrean. Kasu honetan mugak ondo marraztuak ez zirenez, aldatzen eta birdefinitzen joan ziren. Amerika Espainiarreko iparraldeko mugak (Texas, Florida, Mexiko Berria, e.a.) Europar eta indiar aurkakoak gelditzeko babes-leku bihurtu ziren. Amerika britainiarreko mugak, berriz, aurrera egiten zuten kolono berrien beharren eta bertakoei harremanen aurrean. Mugak, dena den, hartu eman, gatazka eta elkarreragin eremuak ziren. Bertan bi aldetako biziraupen beharrak biolentzia eta basakeria bihurtu ziren, baina baita elkarlan eta elkar adostasuna ere. Horrela sortu zen mugaren mitoa Amerika britainiarrean; espainiarrean, berriz, ez zen hain beharrezkoa, elkarulertze askoz handiagoa baitzen.

Bietan esklaboen eta librearen gizarte bereziak sortu ziren, eta horrek aniztasun etnikoa, nazionala eta erlijiosoa zuten gizarte ezberdinak ekarri zituen, orekatuagoak edo gatazkatsuagoak eginaz. Amerika ingelesean, horrek guztiek eta askatasun politikoak eta erlijiosoak aniztasun politikoak ekarri zuten, esklabo beltzentzat ezik,

noski. Amerika espainiarrean, ordea, koloniak monokromoak ziren bai politikoki bai erlijiosoki. Borboiek beren erreformekin militarizazioaren lehen haziak ereiten zituzten bitartean, Hannovertarrek metropoliko gudarostea bidaltzea erabaki zuten. Kasu honetan, amerikarrek segituan hartu zioten tiraniaren eta bidegabekeriaren susmoa erabaki honi eta horrek ezberdintasunak eta mesfidantzak areagotu zituen. Defentsa eta babesaren arazoak aldaketak ekarri zituzten bi inperioetan. Espainiarrek ingelesekin Iparramerikako merkataritza-inperioaren eredia hartu zuten, eta ingelesek borboien zentralismoa ezartzen saiatu ziren. Azkenean, inperio-erlazioen berregituraketa bat gertatu zen. Amerikako gertakariak eta ezegonkortasuna metropolietan eragina izaten hasi ziren. Espainiaren kasuan, lurraldearen hedadura zela eta, mailakatuta egin zenez, ondorioak ez ziren egin ziren, baina Ingalaterraren kasuan aldaketak kolpea egin ziren.

Iparramerikarrek presioari aurre egiteko metropolitik gaiak ez inportatzea erabaki zuten, Erdialdeko Amerikan eta Hegoamerikan, aldiz, kontrabandoa eta Europatik ekarritako gaien legezko merkataritza. Amerikako espainiar eta ingeles lurraldeak monarkia konposatu baten partaidetzat jotzen zituzten euren buruak, baina tamalez Estatu zentralista batean zeuden. 1760 eta 1770eko hamarkadetan aldentez ideologiko eta psikologiko nabarmenak gertatu ziren jatorrizko eta Amerikako lurraldeen artean, areagotuta ideologi ilustratuari eta parlamentarismo iraultzaile *whig*-aren eraginez.

Burujabetasun eta Independentzia guden gainera, bi kasuetan erregearekiko leialtasuna indartsu mantendu zen. Hala ere, iraultzaileen artean ikuspegiak oso ezberdinak ziren: erradikalenak burujabetasunaren alde hasiera hasieratik, moderatuak aurreko egoerara bueltatzeko irrikitan. Independentzia gudak izateaz gainera, gerra zibilak izan ziren. Bi kasuetan erregea eta bere menpekoen arteko hitzarmenaren baliogabetze erabili zen, eta bi kasuetan emaitza berdina izan zen: nahiz eta hasiera batean 1763ko garaira bueltatzeko asmoa izan, atlantikoko bi komunitateen arteko bereizketa gertatu zen. Amerikarrek, azken batean, metropolietako biztanleen eskubide berdinak izan nahi zituzten. Bi iraultzen emaitza ezberdinak ulertzeko bi faktoreei erreparatu behar diegu: Amerika ingelesean ez bezala, Amerika espainiarrean inperio-egiturak ederki sustraitu ziren eta iparramerikarrek Europako potentzien laguntza jaso zuten. Komunitateko Ganberak zein Kadizko Gorteen ez ziren amerikarren ardurei aurre egiteko edo erantzuteko gai izan. Metropolietako gudarosteen iristeak sentimenduak eta independentziaren aldeko grina berotu eta areagotu zituzten. Amerikako britainiar inperioaren bukaerarekin Iparramerikako koloniek beren gaiak kudeatzeko jarraitu zuten, ordu arte egin zuten bezala, espainiarren egitura desagertu zenean, berriz, nekez beteko zuten hutsunea geratu zen.

Iberoamerika independentearen bilakaera atzerapen ekonomiko eta hutsegite politikoaren kronika izan zen, baina Elliott-en uste apalean “kondaira beltza”tik sorturiko “jarauntsi espainiarrak” ez dauka zerikusirik aipatutako arazo eta hutsegiteetan. Ingalaterraren kasuan ere, autoreak jarauntsiaren onurak ezeztatzen du. Kolonia ingelesak, hedatzen ari zen merkaturia eman bazioten ere, ez zioten etekin eraginkorrik ematen metropoliari, ez bada Britainia Handia lortutako nazioarteko ospea. Espainiaren kasuan, kostu-eteekin erlazioa baikorra baldin bazen ere –Koroaren urteroko diru-sarreraren %15-20a baitziren– gizartearentzat oztopoa izan zen, bere ahalbideen gainera bizitzera behartu baitzitzaizen. Epe luzean, Amerikako etekinek Espainia baino Europa aberastu zuten. Koroa espainiarren kanpoko politikak, ohiko egitura politikoak eta sozialak indartu zituenak, metropoliaren ekonomia indargetu zuten, eta honek berrikuntzak sartzeko aukerak. Amerikako zilarra Europara eta Asiara joan zen, nazioarteko txanpon-sistema bat eraikiz, eta bere garapenarekin ekonomiaren unibertsal bihurtzea ekarri zuen.

Elliott-en esanetan, ingeles inperioaren ahuleziak etorkizunean sortuko ziren egitura politikoaren indarra eta sendotasuna ekarri zuen, hauek bere kabuz bidea ireki behar izan zuten, eta horrek beren instituzio eta kultura-eredu propioak sortzeko erresistentzia eta segurtasuna eman baitzien. Baina, gure uste apalean, Iparramerikako eta, Erdialdeko Amerikako eta Hegoamerikako egungo Estatuaren errealitatea ulertzeko ez da nahikoa XVI eta XVIII. mende bitarteko bilakaera historikoa, eta gehiago sakondu beharko genuke XIX. eta XX. mendean, eta Estatu Batuen eta Amerikako beste Estatuaren arteko harremanen historian.

Laburbiltzeko, dudarik gabe, azken urteetan egin den sintesi ederrenetarikoa da eta eskuliburu paregabea izan daiteke etorkizunean. Eskertzekoa da egoeren aniztasuna islatzeko egiten duen esfortzua, deskripzio monolitikoetatik urrun. Baina gaurkotasan akatsak egiten ditu behin baino gehiagotan, adibidez, liburuaren bukaeran, konkista eta kolonizazioaren onurak eta bertako indioei emandako ekarpen zalantzarriak aipatzen dituenean, batez ere Espainiaren kasuan, edo hitzaurrean enkomienda zapalkuntza eta esplotazio tresna dela esaten duenean, Europan garaiko nekazariak eta menpekoek jasandako "bigarren morroitz" edota hedakuntza holandarrak XVII. mendean Indonesian eragin zuen egoera hobea balitz bezala. Askotan lekuz kanpoko aipu-kentze nabarmenak egiten ditu: Thomas Morton ospe txarreko inkonformista bezala deskribatzen du.

Batzuetan jakindako eta berrikuntzarik ekartzen ez dituzten gauzak aipatzen ditu, bere diskurtsoa astuna eginez; datu asko soberan daudela. Bi inperioen arteko paretotasun bakarra faktore geografikoa da, jada esan dugun bezala, biak egun kontinente amerikarra bezala ezagutzen dugun lurraldean baitaude. Analisisa hutsa da, sintesia konparaketa baino, konparaketa izateko datu gehiegi maneiatzen baititu. Bere diskurtsoa gehiegi errepikatzen da eta batzuetan ematen dituen azalpenak azalekoegiak dira. Aurreiritzi batetik hasten da gainera, zalantzarria baita XVIII. mendera arte ingeles inperio batez hitz egin ahal izatea. XVIII. mendean, Adam Smith-ek berak Ingalaterraren "inperio ahultasuna" onartzen bazuen, nola hitz egin daiteke inperio britainiarrari buruz XIX. mendea baino lehen? Autoreak kultur eta gizarte bakoitzaren izaerari buruzko betiko topikoak eta aurreiritziak erabiltzen jarraitzen du askotan. Itzulpena aldetik ere zenbait akats nabarmen aipatu daitezke. Askotan itzultzaileak onartezineko lengoai gertuagoa erabiltzen saiatzen da inguru espezialista edo akademikoan: "sobornados" hitza erabili beharrean "untados" erabiltzen duenean, edo behin "dorar la píldora" esamoldea erabiltzen duenean.

Bukatzeko, baztertuak geratzen ari diren paradigma historiografikoak erabiltzen ditu, behar bada zenbaitetan bibliografia oso zaharra erabiltzen duelako, ez Ingalaterraren kasurako, baina bai Espainiako kasurako bederen; kasu gehiegitan 90. hamarkadako baino zaharragoa alegia. Gaur egun Espainiako XVII. mendeko krisialdi sakona eta Amerikako meategien ustiaketa-krisia bere horretan mantentzea ñabardurarik gabe ezinezkoa da², are gehiago, Elliott-ek berak mende horretan Sevillara ailegatzen ziren zilar-inportazioak jaitsi baziren ere, metal-bitxiak kontrabandoaren eta beste bide batzuetatik iristen zirela onartzen duenean.

Álvaro Aragón Ruano

2. "Krisialdi" kontzeptuari buruz ikusi: SANZ AYANZ, C. "La decadencia económica del siglo XVII", FLORISTÁN SAMANES, A. (coord.): *Historia de España en la Edad Moderna*. Bartzelona: Ariel, 2004; 391-408 orr.